

TESTU-MOTA: Dibulgazio-artikulua

IKASTETXEA: Orereta Ikastola

MAILA eta GELA: DBH1D

IRAKASLEA: Sara Aramendi Moreiro

DBH1. mailakoekin 2. ebaluazioan euskal kulturarekin lotutako unitatea landu dugu eta horrekin zerikusia zuen gaia aukeratu ondoren dibulgazio-artikuluak idatzi behar izan dituzte. DBH1D gelako Izaro Louvelli eta Anet Mazizior ikasleek idatzitakoa izan da ikaskideen artean arrakasta handiena izan duena.

EGUZKI-LORE EDERRA, ZABAL EZAZU SINESKERA

Izaro Louvelli eta Anet Mazizior

Zuri begira dira... baina, zer da? Nolakoa da? Zein ezaugarri dauzka? Lore arrunta dirudi, baina behin bere historia ezagututa, oso lore berezia dela ikusiko duzu. Ziur nago noizbait entzun duzula baserrietako ateetan zintzilikatzeke ohitura dagoela, ba al dakizu zergatia? Jarraitu irakurtzen eta xehetasun gehiago aurkituko dituzu!

ITXURA, KOLORE, GURE LORE

Eguzkilorea bere kolore hori distiratsu bereizigarriagatik eta margarita itxurako petaloengatik ezagutzen da. Bizitasuna eta babesa sinbolizatzen dituen lorea da. Formari dagokonez, nahiko lore zentzugabea eta desordenatua da. Hosto arantzatsu zabalak eta haragitsuak dituen, karduak bezala. Hortaz gain, eguzkiloreak duen ezaugarri nagusienetakoa, beste loreek ez daukatena, lehortzen denean ez zimeltzea da, edertasun guztia mantenduz. Lore honek, bi urte behar izaten ditu loratzeko, gutxienez. Lorearen burua erabat loratu baino lehen arantzazko armazoi batek babesten du. Ez pentsatu espezie bakarra dagoenik, Euskal Herrian bi espezie mota daude, alde batetik, eguzki-lore luzea (*Carlina Acaulis*) eta bestetik,



eguzki-lore laburra, (Carlina Acanthifolia). Astalarra, basalarra edo kardalora izenak ere baditu. Gainera, errotik destilatutako berezko olioak du, flabonoideak eta substantzia antibiotikoak dituen usain oso berezi eta atsegina dituen.


EGIA EDO GEZURRA EZ DA EZER ZIURRA

Euskal mitologiako landare ezagun honen gaur egungo erabilera nagusia apaintzekoa da, hain zuzen ere, etxeetako ateetan jarri ohi da. Ohitura hori eguzkilorearen kondairan oinarritzen da, sorginak urruntzeko eta etxeak babesteko balio zuela baitio istorioak. Gaur egun, ohikoa da eguzki-lorea ikustea ate askotan apaingarri gisa. Euskal Herriko hainbat herritan harekin lotutako ohiturak dituzte, adibidez, Beasainen eta Oñatin basa-karduzko lore bat edo gehiago jartzen dituzte baserriko ate nagusian. Erriberagoitian eta Telleriarten, kardulore hori ukuiluko habeetako batean jartzen dute, eta azken herrian, baita etxeetako atean ere. Haren itxurak eguzkia irudikatzen duenez, antzinako sineskeren arabera, baserriak eta bordak sorgin eta izpiritu edo izaki gaiztoengandik babesteko balio zuen. Bestalde, sorginkeria, aztikeria eta madarikazioen aurkako babesak ere ematen omen zuen. Eguzki-lorearen babes ahalmena, Donibane eguneko goizaldean urte osoan baino indartsuagoa izan ohi da. Azkenik, sineskera hori Mendebaldeko Europako herrialde askotan jasotzen da.



IPUIN, ISTORIO, KONDAIRA LEGENDARIO

Kondairari dagokionez, bizitzaren hasieran, Lurra ilunpean zegoen garaian alegia, gizakiek erreguka eskatu zioten Mariri mehatxatzen zituzten izpiritu eta numen gaiztoen kontra borroka egiten lagun ziezaien. Eguzki Lurraren bazterretik ezkutatzen zenean, gaua sortzen zen. Gauetz beren bizitokietatik ez ateratzeko eskatu zien gizakiei, eta beren etxeetako atean eguzki loreak jartzeko esan zieten, haiek babestuko baitzituzten gaizkiaren aurrean. Gainera, lore honen izenaren jatorria, datu garrantzitsu batetik dator, honakoa da: beti dago eguzkiari begira, horregatik du izen hori. Azkenik, Marik, erreguak entzun ondoren, lehenengo alaba eduki zuen, Ilargi. Gizakiek asko eskertu zioten Ilargiren argia eman zielako, baina hura ez zen nahikoa gaizkiaren kontra



borroka egiteko. Orduan, argi gehiago emango zuen eta ilunpetik aterako zituen zerbait eskatu zioten berrero gizakiek Mariri. Marik beste alaba bat eduki zuen, Eguzki, horrela sortu zen eguna. Ondoren, gaua iristen zenean, izaki misteriosu eta sorginak beren gordeleketatik atera, eta gizakiak mehatxatzen jarraitzen zuten. Orduan, gizakiek Mariri eskatu zioten ea bazuen gaizkiaren kontra gauzez borroka egiteko zerbait sortzerik; horrela, Eguzki Lore sortu zuen Marik.

Argi dago, eguzkilorea euskal kulturaren oso lore sinbolikoa eta garrantzitsua dela, garai batetik gaur egun arte mantendu diren sineskera eta ohiturengatik, beraz, jarrai dezagun lore honen bizitza mantentzen.